

## INTERBENTZIOAK EBALUATZEKO PLANTILLA

Jakinda pretest eta postestean agertutako emaitzak ebaluatuko direla, eta interbentzioak egin direla, hauek ere beste era batera ebaluatuak izango direla esango nuke, hala nola, plantilla baten bitartez.

Hona hemen interbentzioetarako sortutako plantillak (parte hartzea ebaluatzeko modua adierazten duena).

**1.INTERBENTZIOA:** Parte hartzea ebaluatzeko fitxa (Ikasleen izenak ez agertzeko izenen lehenengo hizkia erabiliko dut)

<b>PARTE HARTU DUTENEK+EMANDAKO IDEIA NAGUSIAK</b>
Egingo zaizkien galderak:
- Zer iruditu zaizue bideoa? Zer da deigarriena?
I.: Metalezko hankak ditu, baina badaki ibiltzen. (1.bideoa)
H.: Andereñoak umeak txarto tratatzen ditu, baina umea lagunei laguntzen zien. Ez dira ondo konpontzen, beti eztabaidatzen dutelako. (2.bideoa)
O., I., P. --> Motibatuta egon dira.
M. : Golak, dantza eta ume txikiak agertu dira. (3.bideoa)
M.: jendea asko esfortzatzen da golak sartzeko.
A: Txinatarrak laguntzen zien guztiei. (4.bideoa)
I: Mutila oso eskuzabala eta jatorra zen, eta gizonak janaria erosten zion auzokoari
E: Txerrikumearen ipuina kontatu du. (5.bideoa)
O: Boxeoa eta dantza agertzen dira (6.bideoa)
P: Neskak mutilari ballet dantza irakatsi zion eta esfortzatzen denez, bere aitari dantzaria izan nahi duela esaten dio.
- Zergatik uste duzue bideo hauek jarri dizkizuedala?
E: Gauza txarrak gertatzen direlako hasieran, baina gero dena konpontzen dela.
P: Esateko bideoaren bidez gu saiatzen bagara guk nahi duguna lortuko dugula gure bizitzan.

**2.INTERBENTZIOA:** Azkeneko ariketan, gehien eta gutxien gustatu zaien komentarioa ahoz esateko eskatu diet, eta nik, batzuen emaitzak apuntatu ditut:

<b>IKASLEAK</b>	<b>GEHIEN GUSTATU ZAIENA</b>	<b>GUTXIEN GUSTATU ZAIENA</b>
<b>H.Pl.</b>	Alaia eta bihotz onekoa	Matematikan ez hain trebea
<b>Iz.</b>	Euskaraz hitz egitea	Matematikan ez hain trebea
<b>E.</b>	Oso mimosoa	Tontoa
<b>H.Pa.</b>	Preciosa eta alaia	“Txulita”
<b>B.</b>	Mutil ona	Tontoa
<b>P.</b>	Futbolean ona	Txarra matematiketan
<b>L.</b>	Zintzoa	Ez hain trebea lengoaian
<b>X.</b>	Oso guapoa eta potxoloa	Denak gustatu zaizkio
<b>O.I</b>	Altua eta potoloa	Oso lasaia
<b>An.</b>	Bihotz onekoa, guapoa eta ona	Denak gustatu zaizkio
<b>Ib.</b>	Barregarria	Ortografia
<b>Mal.</b>	Jatorra	Errugby-an asko haserretzen da
<b>Ann.</b>	Begi politak eta ona saskibaloian	Denak gustatu zaizkio
<b>It.</b>	Zintzoa eta maitekorra	Asko agintzen du
<b>Mar.</b>	Bihotz onekoa	Denak gustatu zaizkio
<b>As.</b>	Argala eta guapoa	Denak gustatu zaizkio
<b>O.D.A.</b>	Oso zintzoa, lagun ona eta bihotz onekoa	Denak gustatu zaizkio
<b>D</b>	Bihotz onekoa, azkarra, jatorra, zintzoa	Denak gustatu zaizkio